

03/2017 UDALEKO OSOKO BILKURA

2017KO MAIATZAREN 29AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2017ko maiatzaren 29an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- **2017KO MARTXOAREN 27AN OSPATURIKO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

2017ko martxoaren 27ko udal plenoaren bilkuraren akta aho batez onartu da.

2.- **EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2017KO MARTXOAREN 16TIK MAIATZAREN 15A BITARTE, 125 ZENBAKITIK 247 ZENBAKIRA.**

2017ko martxoaren 16tik 2017ko maiatzaren 15a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.

3.- **2016 URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzak jakintzat eman du 2017ko apirilaren 28ko dekretua, zeinaren bidez 2016 Ekitaldiko Aurrekontu Propioaren Likidazioa onartzen den, eta honela dioena:

“DEKRETUA

Udal honen 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINITZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n:		1.181.009,93
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		200.754,24
Aurrekontuko zordunak :	202.449,28	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.412,14	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	3.107,18	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		147.983,17
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	77.633,87	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	72.029,28	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	1.679,98	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		1.233.781,00
5.- Saldo kobragaitzak:		119.705,88
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		1.114.075,12

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	309.707,53
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-163,95
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	55.412,66
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	364.956,24

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	183.640,87
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	294.636,58
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	478.277,45

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

4.- ANOETAKO HERRI IKASTOLAKO DIRU EKARPENA. 2014-2015 IKASTURTEA. 2014-2015 IKASTURTEKO ANOETAKO IKASTOLAREN LIKIDAZIOA

GASTUAK 2 URTEKO GELA

Pertsonal gastuak	2014-15 ikasturtea	53.932,93
Ikastola osoko hornidurak (31.261,40 x % 6,25)		1.953,84
Ikastolako garbiketa (38.658,61 x % 6,25)		2.416,16
Irakasleen eta zentroaren gastuak		58.302,93
Maileguaren amortizazioa (33.036,97 x %33,33), lau hiruhileko	2015. urtea	11.011,22
Jangela: menuak + monitoreak	2014-2015 ikasturtea	5.437,80
GASTUAK GUZTIRA		74.751,95

SARRERAK

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza	13 ikasle	18.277,81
Kuotak (13 haur)	2014-2015 ikasturtea	4.680,00
Jangelako kuotak (2 haur)		2.630,70
SARRERAK GUZTIRA		25.588,51

DEFIZITA**- 49.163,44**

Idazkari Kontu-hartzailearen txostena ikusi ondoren.

2016ko ekainaren 7ko alkate dekretu bidez Anoetako Ikastolari, 2014/15 ikasturteko bi urteko gelako gastuak eta jangelaren erabilera (menua+ monitoreak) finantzatzeko, urtero ematen zaion diru-laguntzaren zati bat, 26.000 € zenbatekoa, aurreratzea erabaki zela ikusita.

Lehena.- Anoetako Herri Ikastolari 23.163,44 euroko diru laguntza ematea, 2014/15 ikasturteko 2 urteko gelako gastuak eta jangelaren erabilera (menua+monitoreak) finantzatzeko.

Bigarrena.- Puntu honetan onetsi den diru laguntza zuzenaren akordioa, 38/2003, Diru laguntza orokorren legearen 18.2 artikulua aplikatuz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Aipatutako proposamena bozketara eraman da eta honakoa izan da emaitza:

Aldeko botoak: BOST (BILDU talde politikoa)

Aurkako botoak: BAT ERE EZ

Abstentzioak: BI (EAJ talde politikoa)

5.- **BAKE EPAILEA ETA ORDEZKOA HAUTATZEKO PROPOSAMENA.**

Ikusita Anoeta herriko Bake Epaille titularra eta ordezkoa hautatzeko gauzaturiko espedienteak.

Ikusita Anoetako Bake Epaille titular eta ordezkoa hautatzeko argitaratutako iragarkiaren ondoren hurrengo pertsonak aurkeztu direla:

- M^a Lourdes Labaca Zabala.
- Iker Echeverria Amondarain.

Idazkari Kontu-hartzailearen txostena ikusi ondoren.

Udalbatzar kideek aurkezturiko eskaerak beren kurrikulumekin aztertu ondoren.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehena.- Iker Echeverria Amondarain jaunari Anoetako herriko Bake Epaille titularren kargua eta M^a Lourdes Labaca Zabala andreari Bake Epaille ordezkoren kargua betetzeko proposamena egitea.

Bigarrena.- Iker Echeverria Amondarain jaunari jakinarazi proposaturiko kargua espresuki onartu beharko duela, eta kargu judizialerako ezgaitasun edota bateraezintasun arrazoiren batean sartuta ez egotearen deklarazioa ee aurkeztu beharko duela, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Legearen 102, 302, 303 eta 289 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaileri hartutako erabakia helaraztea, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Gobernu Aretoari aurkezteko.

6.- **2018. URTERAKO ANOETAKO JAIEGUNA IZENDATZEA.**

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailaren apirilaren 25eko 148/2017 Dekretua bidez Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2018. urteko jaiegunen egutegia onartu da. 2017ko maiatzaren 2ko 81 zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua.

Aipatutako dekretuaren 2. artikulua ondorengo xedatzen du:

1.- Lan ondorioetarako, bi mila hamazortzigarren urtean, tokian tokiko jaietako bi egun ere baliogabe izango dira, hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko. Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkariek zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako udalbatzek proposatuta. Egunduek berdinak izan daitezke edo ez lurralde historikoetako udal-mugarteetan.

2.- Dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean egin behar dute proposamena udalek, eta kokapenagatik dagokien lurralde-ordezkaritzara bidali.

Alkateak bi mila eta hamazortzigarren urtean 2018ko maiatzaren 31, Gorpuzti eguna, Anoetako Udalerriko jaietako egunetako bat izatea proposatu du.

Aipatutako proposamena bozketara eraman eta aho batez onartu da.

7.- ANOETAKO UDALAREN ETA ANOEKATE KIROL KLUBAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ITURTXULO KALEA, 6AN ESKALADA KIROLA SUSTATZEKO (ROKODROMOA ETA GAINONTZEKO INSTALAZIOAK).

Ikusita 2017ko maiatzaren 18ko Kultura batzordearen proposamena, Anoetako Udalaren eta Anoekate Kirol Klubaren artean Iturtxulo kalea 6an eskalada kirola sustatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatzearen inguruan.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehena: Anoetako Udala eta M. A. G. jaunaren (Anoekate Kirol Klubaren ordezkarietan) artean eginiko lankidetzaren hitzarmena onartzea, Anoetako Iturtxulo kalea 6an eskalada kirola sustatzeko, rokodromoa eta gainontzeko instalazioak erabiltzeko.

“ANOETAKO UDALAREN ETA ANOEKATE KIROL KLUBAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ITURTXULO KALEA, 6an ESKALADA KIROLA SUSTATZEKO (ROKODROMOA ETA GAINONTZEKO INSTALAZIOAK).

Anoetan, 2017ko

BILDURIK

PEDRO M^a ESTANGA LASA, NA (...) zenbakiarekin, **ANOETAKO UDALEKO alkatea**.

M.A.G., NA (...) zenbakiarekin, **ANOEKATE KIROL KLUBAREN** Zuzendaritza Batzordearen ordezkaria.

Egintza honetan fede ematen du Pello Odriozola Zubizarreta, udaleko bitarteko idazkariak

ESKU HARTU DUTE

PEDRO M^a ESTANGA LASA jaunak, bere jarduneko kargua betetz, Anoetako udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, udalbatza plenoak 2015eko ekainaren 13an hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eransten zaio hitzarmen honi 1. dokumentu gisa.

M.A.G. jaunak, bere jarduneko kargua betetz, **ANOEKATE KIROL KLUBAREN** izenean eta hura ordezkatzuz, Zuzendaritza Batzordeak 2015eko urriaren 6an sinatuta kirol elkartearen eratze aktaren arabera. Aipatu eratze aktaren kopia eransten zaio hitzarmen honi 2. dokumentu gisa.

Honenbestez, elkar behartzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, honako aurrerakinak azalduz.

AURREKARIAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen baitan, Anoetako Udalak, bere interesak kudeatzeko, bere aginpide esparruan, jarduera mota guztiak bultzatzea, eta herriaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezakeen herri-zerbitzu oro egin.

Aginpide esparru horien artean daude, ezargarri den legearen baitan, kirol jarduerak eta kirol instalazioak sustatzea, eta baita denbora librearen okupazioa ere.

Udalak kirol jarduera mota ezberdinak sustatzea du helburu. Hori horrela izanik, usadio handiko kirolak mantentzeko hainbat ekintza bideratzen du, baina baita denboran zehar indarra hartzen ari diren beste kirol batzuek ere. Horien artean, kirol eskalada giteko aukera dago.

Herriko kirolari eta mendizale askok egiten duten Eskalada bultzatzeko asmoarekin Anoekate Kirol Kluba sortu da. Anoetako Udalarekin elkarlanean kirolariek beraiek

kluba sortzeko behar diren pausoak eman dituzte, eta beharrezkoak diren instalazioak egokitu dituzte.

Modu berean, kirolariak beraien arteko harremanak bideratzeko arautegi bat ere osatu dute, eta Udalari eskatu diote hori onartzea.

Udalak, bere aldetik, kirola egiteko lokala izendatu du, eta behar izan duten laguntza eskaini die instalazioak egokitzean. Instalazioen egokitzapen hauen finantzazioan ere parte hartuko du zehaztuko den diru-laguntzaren bidez. Herri mailan kirol eskaladako piztea eta indartzea interes orokorreko ekintza bat dela deritzo, herritar guztien onurako eta herriaren garapenerako.

Hitzarmen honetan Anoetako herrian eskalada kirola suspertzeko Udalaren eta Anoekate Kirol Klubaren arteko etorkizuneko harremana bideratuko da, bai udalaren lokalari dagokionez, baita kirol-jardueraren erabilerari dagokionez ere.

Aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, eta bi aldeek erakusten duten elkarlanerako prestutasuna oinarri, LANKIDETZA HITZARMEN hau adostu dute, jarraian zehazten diren estipulazioen arabera:

ESTIPULAZIOAK

LEHENA. XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Anoetako Udalarena den Iturtxulo, 6ko lokalaren zati egokitua **Anoekate Kirol Klubaren esku** alokatzea, bertan eskaladako kirola eskaini ahal izateko.

Udalaren jabetzakoa den Iturtxulo kalea, 6ko lokalaren deskribapena honako hau da (eskaladako kirolari egokitutako zatia):

Lokala, Iturtxulo 6 behe solairuan, ezker aldean kokatzen da.

Lokalak bi planta ditu, behe planta eta sotoa. Jatorrian, banaketa lanak egin aurretik, lokalaren azalera erabilgarria 80,06 m² zen behe plantan eta sotoa 53,68 m² (eskailera barne). Behe solairuko altuera, 3,49 m (zorutik forjatura) eta 3,18 m (zorutik eskaiolara).

Lokala, 2008. urtean bukatutako etxebizitzetarako eraikuntza baten parte da. Eraikuntzak, sotoa+behe planta+4 etxebizitzaren planta ditu. Estalketa, teilatu lau ibilgaitzen bidez egina.

Lokalak dituen instalazioak:

ARGINDARRAREN INSTALAZIOA. Lokalak argindarraren instalazioa du, bere hasierako koadro elektrikoa, entxufeak eta argi puntuak sabaian.

BEROGAILU SISTEMA. Lokalak, behe solairuko zatian zoru erradiatzaileko instalazioa egina du azpiko forjatu eta baldosaren artean, baina ez dago martxan, galdara jarri gabe dagoelako.

GASA. Gasa sartzeko tuboa sartuta dago. Barruko instalazioa ez.

TELEFONOA. Telefonoaren linea sartuta dago. Barruko instalazioa ez.

HERRIKO URA eta HUSTUBIDEA. Lokalak, uraren eta hustubidearen akometidak egina ditu. Bertan komuna egin denean, barruko instalazioa egin da.

AIRE BERRITZEKO INSTALAZIOA. Behe solairuan, aire berritzea leihoek irekita egitea aurreikusten da. Sotoan berriz, ba du aire berritzeko instalazio berezia, txapazko konduktuaren bidez eta bertan horretarako saretoa ditu.

LOKALAREN BUKAERAREN MATERIALAK:

- Zorua: Bi solairuetan, zorua baldosa zeramikarekin daude eginda.
- Paretak: Behe solairuan igeltsurekin dago. Sotoan, hormigoizko blokea agirian.
- Sabaiak: Behe solairuan, igeltsuzko sabai bikoitza du. Sotoan, forjatua margotuta.

EGINDAKO EGOKITZE LANAK: Behe solairuan egokitze lan batzuk egin dira. **KOMUNA:** lababoa, dutxa bere manpararekin eta komunarekin osatuta, paretak azulejoarekin errematatuta, dutxan altura osoan eta beste guztian 1,40 m alturaino. **BULDERRA:** metalezko egitura bidez, egurrezko panel inklinatuak jarri dira bertan eskalada saioak egin ahal izateko. Horien azpian, segurtasun gaiak osatzeko, koltxoneta bigunak daude.

BIGARRENA. KANONA

Anoekate Kirol Klubak hileko 50 € ordainduko dio Anoetako Udalari, kanon gisa. Kuota hau urtero errebisatuko da.

Nolanahi ere, Udalaren asmoa herrian kirol eskalada piztea izanik, eta kontuan hartuta Anoekate Kirol Klubak kirola egiteko beharrezkoak diren instalazioak egokitzea eta mantentzea bere gain hartu dituela, honako finantza-oreka onartu da:

a) Anoetako Udalak %100ean bere gain hartu ditu jadanik egin diren lokalaren egokitzapenak.

- Anoetako Udalak finantzazio hori 16.698,49 € ordainketaren bidez egin du bi urtetan banatuta.

b) Anoekate Kirol Klubak bere gain hartuko ditu eskaladako kirola modu egokian eta segurtasunez egiteko aurrerantzean sortu daitezkeen inbertsio berriak. Aldez aurretik bi aldeek adostuko dute une bakoitzean beharrezkoak diren inbertsioak, eta alde bakoitzak ordainduko duen zenbatekoa.

Lokalaren erabilera bukatu ondoren, udalarentzat izango dira bertan egindako egokitzapen eta inbertsioak, salbu eta udalak lokalari beste erabilera bat ematea erabakiko balu, kasu honetan eta udalak beste areto bat egokitzeko erabaki sendoa hartu gabe izango balu, Anoekate Kirol Klubak beste lokal bat egokitu ahal izateko behar lituzkeen material higikorrak (hau da, lokalaren estruktura finko bihurtu ez direnak, adibidez heldulekuak, koltxonetak e.a.) erabili ahal izango ditu, hauen jabetzarekin Anoetako Udalak jarraitzen duelarik.

HIRUGARRENA. LAGAPENAREN IRAUPENA

Anoekate Kirol Klubak Anoetako Udalaren jabetzakoa den lokala 10 urtez erabili ahal izango du hitzarmenaren xede den kirola emateko. Erabilpen hori 2017ko ekainaren 1etik hasiko da.

Epe muga amaitu aurretik Anoekate Kirol Klubak akordio bidez bere jarduera bertan behera uzteko erabakia hartuko balu, lokala Udalaren gain utziko du, eta Udalaren erabakia izango da erabilera mantendu edota lokalari beste erabilera bat ematea.

Epe muga amaitu aurretik Anoetako Udalak lokalaren derrigorrezko erabilpena behar izanez gero, horrela jakinaraziko dio Anoekate Kirol Klubari gutxienez bi hilabete aurretik, eta dagokion prozedura jarraitu beharko du interes orokorreko proiektua onartu eta kirolaren egoitza birkokatzeke.

LAUGARRENA. KIROL ESKALADARAKO EGOITZA.

Anoekate Kirol Klubaren ardurak izango da nahi duten herritar orok kirol eskalada egiteko aukera izan dezaten.

Horretarako 3. dokumentu modura jaso den ARAUTEGIA ezarriko du, eta ez du inolako bereizkeriarik onartuko (kirola egitea ukatzen diren edadeko arazoak edo fisikoak izan ezik).

Hitzarmen honen bidez Anoetako Udalak arautegia onartzen duela aitortzen du, eta klubaren egoitza lokala bera izango dela onartzen du.

Kirol eskalada bultzatzeko klubak herri mailan antolatzen dituen ekintzak burutzerakoan Anoetako Udaleko kirol departamenduari koordinatuko da.

Era berean, Udalak eskumena izango du kirol praktika hori sustatzeko klubaren lankidetzak eskatzeko, lankidetzak hauen xehetasunak kluba eta udalak izendatutako ordezkarien artean adostuko dira kasuz kasu.

Lokalaren baitan egin beharreko edozein oinarritzko inbertsioaren berri emango dio Udalari (inbertsioak lokalari eragiten badio).

BOSGARRENA. ANOEKATE KIROL KLUBAREN FINANTZAZIOA ETA LOKALAREN MANTENU-GASTUAK

Kirol eskalada segurtasunez eman eta hitzarmen honetan jaso den finantza-oreka bermatzeko, Anoekate Kirol Klubak kuotak eskatuko dizkie bere bazkideei.

Segurtasun neurriei dagokienez, Klubak hartuko du bazkideen ardura (agiri bat sinatuko dute bazkideek, zerbait gertatuz gero erantzukizuna bere gain hartuz), eta Anoetako Udalak erantzukizun zibileko aseguruaz arduratuko da.

Lokalaren mantentzea Anoetako Udalari dagokio. Horrela, bere gain izango dira ura, argindarra, zaborrak, aseguruak, extintoreak eta telekomunikazio zerbitzuen gastuak.

SEIGARRENA. HITZARMENAREN IZAERA ETA ARAUBIDEA

Hitzarmen honek helburua administrazio izaera du. Nolanahi ere, lokalaren lagapenari ezargarri zaizkion klausulei antolamendu juridiko pribatiboa ezarriko zaio.

Hitzarmen honek edo bere betearazpenak sor ditzaketen interpretazio arazoak udalak ebatziko ditu, Ezin bada hala egin, Araudi pribatua ezarriko da.

ZAZPIGARRENA. HITZARMENAREN ONDORIOAK

Hitzarmenak ez dakar alderdi jarduleek euren eskumenei uko egitea ezta eskumenok aldatzea ere. Alderdi jarduleek hitzarmena sinatuz berez sortzen diren erantzukizunak soilik onartzen dituzte.

Hitzarmenak, sinatzen den unetik, alderdi jarduleak behartuko ditu eta ondorioak izango ditu.

Adierazitako indarraldia bukatzeagatik, edo suntsiarazi delako, azkenduko da hitzarmena.

Alderdietakoren batek hartutako konpromisoak ez baditu betetzen, besteak ahalmena izango du konpromiso hori betetzeko agintzeko edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko.

Eta azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutakoek hau sinatu dute, bikoiztuta, goian adierazitako toki eta datan.

ANOETAKO UDALA

ANOEKATE KIROL KLUBA

Pedro Maria Estanga Lasa

M A G

Bigarrena: Pedro M^a Estanga Lasa jaunari, edo legalki ordezkatzeko duenari, sinatzeko baimentzea hitzarmen hau formalizatzeko beharrezko diren agiri publiko zein pribatuak.

8.- FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAK ETA ANOETAKO UDALAK INFORMAZIOA ELKARRI LAGATZEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN BAITAN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDAN JASOTAKO DATUEN KONTSULTAN SARBIDEA IZATEKO ERANSKINA SINATZEA.

Anoetako Udaleko Udaltzarrak 2014ko martxoaren 31n egindako Osoko Bilkuran, Foru Aldundiko ogasun eta finantza departamentuak eta Anoetako Udalak informazioa elkarri lagatzeko lankidetzak hitzarmena sinatzea erabaki zuen.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehen.- Foru Aldundiko ogasun eta finantza departamentuak eta Anoetako Udalak informazioa elkarri lagatzeko lankidetzak hitzarmenaren baitan Gipuzkoako Foru

Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsultan sarbidea izateko D-7 eranskina onestea:

“D-7 ERANSKINA.- Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.

1. Deskripzioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.

2.- Informazio lagapenaren helburua.

Ordezkaritza egiaztatzea hirugarren pertsonen izenean egiten diren jarduketan.

3.-Arau oinarria.

Bai administrazio prozedurari buruzko araudiak bai araudi tributarioak ordezkartzaren egiaztatpena eskatzen dute hirugarren pertsonen izenean jarduteko.

4.- Datuen titularraren baimena.

Ez da beharrezkoa. Izan ere, eranskin honetan arautzen den informazioaren lagapenerako, interesdunaren baimena ez da bete beharreko eskakizuna lagapena aurreikusita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 6. artikuluan.

5.- Eman beharreko informazioaren edukia.

Udal hartzaileak kontsultatu ahalko du Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuak.

6.- Informazio lagapenerako prozedura.

Informazio lagapena bi alderditik egingo da:

- a) *Atzipena udalaren zerbitzu telematikoen ataritik: Legezko ordezkartzaren bat duen pertsonak ordezkatzaren duen pertsonaren izenean baliabide elektronikoen bitartez jardutea nahi izango balu, udal aplikazioak ordezkartza baliozkotu du ordezkarien erroldan dagokion kontsulta eginez.*
- b) *Udal langileen atzipena: Udal hartzaileak izendatutako langileek legezko ordezkarien erroldan atzitu ahalko dute, oinarritzko kontsulta profilekin, zerbitzari seguru batean horretarako berariaz prestatutako zerbitzua erabilita. Sistemak baimendutako erabiltzaileen autentifikazioa eskatuko du betiere, eta komunikazio segurua eta j datuen osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko ditu.*

Horrek guztiak ez du eragotziko beste bideren bat ezartzeko aukera, kasu jakin batean eraginkorrago eta komenigarriago dela iritzita, betiere hein berean segurua bada, eta horretarako eskuragarri eta baliagarria bada.

7.- Lagapenaren aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsonen kopurua.

Kontsuluten aldizkakotasuna iraunkorra eta etengabea izango da, udal hartzailearen beharren arabera.

Ezin da eragingo duen pertsonen kopurua zehaztu, kontsuluten zenbatekoa baliabide elektronikoen erabiltzaileen eta horiek legezko ordezkartza erregistratuta duten ala ez menpe baitago.

8.- Emandako datuak hirugarren bati lagatzeko aurreikuspena.

Ez

9.- Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa.

Izen-deiturak, nortasun agiria, lanpostua eta e-posta

Erabiltzaileei alta ematea, sarbideak baimentzea eta sarbide horiek etengabe eguneratu eta egokitzea, udal hartzailearen organo arduradunak (edo bestela, IZFEk) egingo duen zeregina izango da, Ogasun eta Finantza Departamentuak gainbegiratzeko duen aukera baztertu gabe.

Nolanahi ere, sarrera kudeaketaren arduradunak erabiltzaileei pertsonalki informatuko die informazioa atzitzearen ondorioz berari dagozkion betebeharrak eta erantzukizunen inguruan.

Udal hartzaileak erantzungo du bere erabiltzaileek legezko erroldaren datuei ematen dieten erabileragatik, eta, zehazki, haiek eskuratzen dituzten datuen proportzionaltasun, egokitasun eta bidezkoitasunagatik.

10.- Solaskideak.

Zuzenbideko gaietarako: Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / [Izen-deiturak, nortasun agiria, lanpostua, e-posta eta telefonoa.](#)

Informatika gaietarako: IZFE, SA / [Izen-deiturak, nortasun agiria, lanpostua, e-posta eta telefonoa.](#)

Beste gai material batzuetarako (lagapenaren ohiko kudeaketa...): Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / [Izen-deiturak, nortasun agiria, lanpostua, e-posta eta telefonoa.](#)

Bi aldeek beren gain hartzen dute eranskin honetan adierazitako datuak eguneratuak izateko ardura.

11 Bestelako eginkizunak.

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaz hitzarmenaren hamahirugarren klausulan jasotzen den informazioa sistema tradizionalen bidez bidaltzeko ez eskatzeko eta herritarrari ekarpen indibidualik egiteko ez eskatzeko konpromisoaz gain, udal hartzaileak konpromiso hauek ere hartzen du:

- *Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinaraziko dio informazio lagapenean gerta daitekeen gorabeherak, teknikoak nahiz juridikoak.*
- *Erroldan inskribatu gabeko legezko ordezkarietarako buruzko informazioa atzitzeko balu, horren berri emango dio Ogasun eta Finantza Departamentuari, badagokio, ofiziozko inskripzioa egin ahal izateko.*

Bigarrena.- Pedro M^a Estanga Lasa alkateari edo bere legezko ordezkariari ahalmena ematea akordio hau burutzeko beharrezkoak diren agiri publiko edo pribatu guztiak sinatzeko.

Hirugarrena.- Akordio honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko ogasun eta finantza departamentuari ematea.

9.- **DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO 1 ZK.KO 80/2017 EPAIAREN BERRI EMATEA. BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, S.L.**

Ikusita 362/2013 eta 146/2015 Prozedura Arruntetan, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1. Zenbakiko Epaitegiak emaniko 80/2017 zenbakia duen sententzia:

Demandatzailea:BPXPORT Kirol Zerbitzuak, S.L.

Demandatua: Anoetako Udala.

Gaia: “2013ko maiatzaren 27ko eta 2014ko abenduaren 29ko Udalbatzarraren Osoko Bilkuraren ebazpenen aurkako errekurtsua; ebazpenak, Anoetako Udal Kiroldegiaren kudeaketarako kontratuaren likidazioari buruzkoak; 2014ko maiatzaren 13ko alkate dekretuaren aurkako errekurtsua, Anoetako Udal Kiroldegiaren kudeaketa integralararen zerbitzu ematearen erreklamazioari buruzkoa”.

Eta bertan ondorengo **EPAIA** ematen dena, Udalbatzako kideak jakinaren gain geratuz:

“Que debo ESTIMAR y ESTIMO PARCIALMENTE el recurso contencioso administrativo interpuesto por la representación de BPXPORT Kirol Zerbitzuak, S.L. frente a las actuaciones administrativas indicadas en el encabezamiento que se declaran no ajustadas a derecho y se anulan dejándolas sin efecto, reconociendo como situación jurídica individualizada al recurrente el derecho que por la corporación local se le abone la suma total de 180.459,72 euros, pendiente de pago por la Liquidación del Contrato de Gestión del Polideportivo de Anoeta, incrementada en los intereses legales correspondientes, para 49.857,777 euros desde el 14 de abril de 2014 y para 130.601,95 euros desde el 20 de enero de 2015. No se efectúa imposición de costas.”

10.- **“LARRIKI GAIXORIK DAUDEN PRESOAK ASKATU! MANU ETXERA!” MOZIOA.**

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu eta Aratz Luisa Urkola zinegotziak irakurri duen ondorengo mozioa aho batez onesten da:

“LARRIKI GAIXORIK DAUDEN PRESOAK ASKATU! MANU ETXERA!

Gibelaren inguruan dagoen Porta zainean duen kabernoma (tumorazio antzeko zerbait, baina ez da txarra) da Manu Azkaratek duen gaixotasuna. Gaixotasun hori duten pertsonak odolaren zirkulazioarekin arazoak izaten dituzte. Odolak zailtasunak izaten ditu bihotzera bidean, kabernomak oztopo garrantzitsua baitira zeregin horretan. Arazoa areagotu egiten da, gainera, sabeletik behera dauden zainen kasuan; odolak presio izugarria duenez hipertentsioa sortzen da.

Oztopo horiek saihesteko, odolak beste zain batzuk zeharkatzen ditu bihotzera iristeko. Bidean barizeak sortzen dira eta hemorragiak izateko arriskua dago. Hala ere, arazorik larriena gaixoak biriketan enboliak izateko duen arriskua da. Bat-bateko heriotza eragin dezake enboliak.

Gaixotasunaren konponbiderik errazena kabernoma hori kentzea da. Manuren kasuan, ordea, ezinezkoa da. Batetik, oso toki txarrean dago kokatua tumorea. Bestetik, Porta zaina oso zain garrantzitsua da, beraz horren lana egingo lukeen zubi bat jartzea ezinezkoa da.

1992an espetxetik atera ondoren, konponbide gisa filtro bat jarri zitzaion Porta zainean eta sabeleko zainetatik bihotzeraino zubia egin zioten. Hala ere arriskua saihetsezina da.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gogorarazten digun bezala, Osasunerako eskubidea eta osasun asistentzia duin bat izateko eskubidea, pertsona guztien oinarrizko eskubidea da. Beraz, pertsona orok, osasun asistentzia egoki baterako sarbidea izan behar du, eta tratu duin, justu eta humanoa jaso beharko du.

Gaixo dauden presoak, pertsonak izateagaitik soilik, beraien osasun eskubidea aitortua eta errespetatua izan behar dute, pertsona horiek tratu duin eta humanoa jasotzeko eta osasun asistentzia egokia izateko eskubidea dute, nahiz eta preso egon.

Larriki gaixorik dauden presoek kasuan, Manuren kasua tarteko, beraien bizia arriskuan dago, oso larri daude, eta premiazkoa dute askatasuna, ondorio larriagorik gerta ez dadin. Kartzelako berezko baldintzak oso gogorrak dira eta barruan ezin dute tratamendu egokirik jaso, horregatik lehenbailehen etxean behar dute.

Giza eskubideen adierazpen unibertsalean jasotako bizitza eskubidea urratzen du Espainiako eta Frantziako kartzela-politikak; ez da zilegi gaixotasun larriak dituzten presoak kartzelan edukitzea.

Giza eskubideak ideologia ororen gainetik daude, pertsona orori dagozkigu, baita kartzelan daudenei ere. Eta horiexek defenditzen jarraituko dugu.

Honegatik guztiagatik, mozio hau onartzearekin batera, ordezkatzeko dugun udal honen izenean, gai honen inguruan dugun kezka eta ezadostasuna azaltzearekin batera, larriki gaixo dauden euskal presoek berehalako askatasuna eskatuko diogu Espainiako espetxe-zaintza instituzioari.”

11.- GALDE ERREGUAK.

Bat ere ez.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hogeita bost direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.